



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroak erakartzeko gure publizitatearen eta ekintzen bitartez egingo dugu. Jendeak gure webgunearen eta sareen bitartez gure eguneroko ekintzetaz informatu ahal izango direlakoan eguneratuko ditugu berriak eta hauen bitartez erakartzeko asmoa dugu. Gainera urtean zehar ekintza desberdinak eskainiz jendearen atenezioa eskuratuko dugu. Ahoz-ahoko komunikatzearekin ere eskola bat beste batekin hitz egiten diren gauzak direz ekintzen kontua beraz ahoz-ahoko horrekin beste bezeroengana heltzea espero dugu.

Bezeroak mantentzeari dagokionez eskolek eta udalekuel, adibidez, deskontu txiki bat izango dute hainbeste aldiz gure zerbitzuak eskuratu ondoren, gainera gela bakoitzeko ikasle kopuru handiak direnez eta gela bakoitzeko izango litzaketenez gure zerbitzua, urtean zehar eskolak bezero bezela mantentzea errazagoa da. Norbanakoek ere deskontua jasoko dute, egin dituzten bidai kantitatearen arabera. Bestalde, aplikazio baten bidez bezeroek bidearen mapa ikusteko aukera izango dute beraien bidaia ahalik eta errazagoa izateko. Azkenik, bezeroek gure webgunean feedback bat egiteko aukera izango dute bidaia bukatu eta gero. Honek, izan ditzakegun akatsak konpontzera bideratu gaitzake. Gainera gure zerbitzuak askotariko eskaintzak ditu adibidez bidean zehar bizikleta utzi nahi ezkerro edo gupila zulatuz gero, gure zerbitzuen barruan garraioa dago beraien arazoei konponbide bat bilatzeko.

Honez gain, bezeroen iritziak kontuan izango ditugu gure zerbitzua hobetzeko. Adibidez, gure zerbitzua pertsonalizatua izanik, bezeroekin edukiko dugun harremana estua izango da, eta azkenean iritzia entzuteko errazagoa izango da. Gainera inkesta eta balorazioen bitartez (webgunean eskuragarri edukiko dituztenak) datuak jaso eta interpretatzeko errazagoa izango da gure ahuleziak topatuz eta arazoari aurre egiteko. Bestalde, gure estadistikak jakiteko eta goraberak kontrolatzeko ere balioko digu.

Azkenik, jendeari gure zerbitzua eta gure enpresaren inguruko informazioa iritsi zatzaien, triptiko moduko batzuk egin ditzakegu. Gero, bezero berriekin harremanetan jar gaitezke, eta liburuxka hauek banatu. Hau da, adibidez, turista gehineak turismo bulegotik pasatzen dira, beraz, haiekin harremanetan jar gaitezke propaganda egin diezaien turistei. Baita, turistentzat ezinbestekoa da ostatu bat



bilatzea gaua pasatzeko, beraz hotel edo kanping hauen jabeekin harremanetan jarritz, geure enpresaren inguruko informazioa turistei iritea lor dezakegu.



